

BALIO

Eskaintza

1



Gure MakeUp Drone proiektua sortu dugunetik argi izan dugu: jendeari **kalitatea, erosotasuna eta berrikuntza** eskaintzen dizkiogula. Ideia hau ez da gutxi gorabehera sortu; eguneroko bizitzan ikusi dugu askotan makillajeak denbora, dirua eta ahalegin handia eskatzen dituela, eta jende askok ez duela gaitasunik edo pazientziarik nahi bezala egiteko. **Kolore** bereziak eta berritzuak eskaintzen ditugu.

Dronak aurpegia eskaneatzen du eta produktuak era egokian aplikatzen ditu, erabiltzaileari ongizatea eta segurtasuna emanez. Gainera, pertsonaren beharretara eta gustuetara egokitzen da, estiloa edo itxura **pertsonalizatzeko** aukera emanez. Guk geuk ere ikusi dugu askotan jendeak makillaje estilo jakin bat nahi duela baina ez dakiela nola egin; dronak hori automatikoki eta ziurtasunez lortzen du.

Proiektu honek drone+"arreglos" **enpresa** eredu jarraitzen du: ez bakarrik drona saltzen dugu, baizik eta konponketak, eguneratzeak eta pieza ordezkapenak ere eskaintzen ditugu. **Kalitatea, diseinua eta berrikuntza** elkartzen dira; funtzio gehiago gehitzeak prezioa igo dezake, baina horrek balioa ere handitzen du. Bestalde, **ekologikoa, teknologikoa, ekonomikoa** eta egunerokoan **erosoagoa** den produktu baten aldeko apustua egiten dugu.